

*Urte barri on guztiori!!!*

Urte barri bat asi da —1964-na— eta garai onetan oso atsegin jat zuri begiratzea. Eztakit zergaitik. Istillu gorrian nago benetan, zer egin edo ze asmo artu jakin ezifik, baiña... zugan aurkitu ez ote dot aurkituko ain bearrezkoa dotan ba-kea? Ez ote deustazu erakutsiko ibilli bear dotan bidea? Zuk dau-kostazuzala dirudit une onetan ido-roten nabillan erantzunak.

## AITITATXO

Naiz nik amar edo amazortzi ala ogeta-bost edo berrogeta-amar urte euki, zu ni baiño askozaz zarragoa zara. Bai. Ezaitut ondo ikusten; onezkero, barriz, oso zimurtuta zagon bearko zara eta zure negar malloak guztiz legortuta eukiko dozuz. Urteak ez dira alperrik iga-roten...!

Baiña, ... non, aititatxo, non aurkitu dozu zure ezpaiñetan eta zure begietan agertzen dan irribarrea? Lurreko bazterren batean topa ote dozuz? Diruak emon deutsu? zure besoen indarrak? Aa! Zure irudiak dir diratzen dauan bake goxoa...!

Esaidazu: nora begira zagóz? Aur-rrera edo atzera? Bide-ertzean je-zarrita ikusten zaitut, apal-apalik —zure eskuetan bastoi lagun bat dozula —niri begira. Baiña, non nago ni? non ikusten nozu zuk, aititatxo? zure aurrean ala zure zure lepo-aldean? Nora begira za-goz? Esaidazu.

Bardin jat. Bardin entzun eta ika-si daiket zure erantzuna ta berbea. Zure atzetik bonator, ortxe zagoz zu baketsu nire zain, adorea ta txarropena sorterazten nire barruan.



Zugandik urrun banago be ez deust ardura, bide zu-zena daroat-eta. Ba-dakit: nekatu egingo naz —zu be nekatu egin zara—; zimurtu egingo naz —zu be zi-murtu egin zara—; oro zartuko naz —zarra bai-za-ra—; baiña... beti, beti gura dot jarraitu zure irri-barre ta zure bakeaganaño naroan bide goxoa.

Eta zure aurretik banoa, obeto. Iñoiz ez neban uste izango baiña zure begi bigun orreek diñoste nik orainarte egindako guztia ondo egiña dagola ta ez do-tala izan bear ezeren bildurrik. Nire gaiztakeriak? nire gorroto ta zikinkeriak? Ez ote dotaz egin? Bai... baiña zeuk garbitu deustazuz guztiak. Benetako bakea —zure bakea— aingeruak agindutako bakea da-ta.

Eskerrik-asko, aititatxo! Urte barri bat —1964-na— asi dot, baiña ez naz iñoiz aztuko zure irudiagaz. Biotzean zaroadaez eta aurrerantzian ezin izango dot nire odola isuri zure irudia dirdiratu barik.

# ANAITASUNA

X Urtea N.º 109  
Dep. Legal SS. 1092-1959  
Suplemento de la hoja  
Anaitasuna de Guipúzcoa.  
Urtarrilla (1) 1964

Mundu onetan gizonik eta emakumerik geienak ezkontzara doaz. Zertarako doaz Sakramentu orretara? Alkarrekin bizitzeko. Eta, zargaitik alkartuten dira? Zertarako alkartuten dira edo —obetoago esan-da— zertarako alkartu bear dira?

## 1.—ALKARREGAZ BAT EGINDA JAUNGOIKOARI OBETOAGO SERBIDUTEKO.

Mundu onetan danak ez dira ezkontuten; batzuk apaiz, beste batzuk monja, beste batzuk munduan solteru, t. a. geldituten eta egiten dira. Baiña, mundu onetan gagozan guztiok, zuk, gazte maite orrek, eta nik, zuretzako idazten nagoan fraile onek, Dakar-era joan ziran arraintzaile areek eta Japoi aldeko lur aretan Kristo-ren Barria zabalduten dabilzan euskaldun misioneru areek, danok, eginkizun aundi bat egin bearra daukagu mundu onetan, Eleizaren barruan. Geure bizitzaren bidez. geure eguneroko "kolore" bageko bizitzaren bidez geure arima salbatu, eta geure arima salbatuz, mundu zabal onetan dagozan beste nulla ta nulla arima salbatu; eta, geiago oraindiño: rima guztiak salbatuz, Jaungoikoari Aintza emotea. Auxe dozu, irakurle, eguzki ta illetargiaren azpian bizi diran gizon-ema-kume guztien eginkizun **BAKAR BAKARRA!**

Baiña, eginkizun au egiteko, bakoitzak, libertade osoagaz, bakoitzarentzat bidea aukeratu bear dau. Ona emen "bokaziñuaren" sustraia.

Ezkontzara doazenak be eginkizun auxe egiteko doaz, edo... joan bear leuke; beste eginkizunik eztau. Baietz? Ezetz esango deusut, eta segurantzta osoagaz! Ezkontzara ezin daiteke joan "jun por jun" esan oi dan moduan; ezta ezin daiteke joan norberkeriaren (amor propio) gosea asetzeko be, ez! Ezkontzara doazen gazteak —eta bardin zarrak— alkar batu ta Jaungoikoaren naia, mundu onetan dauken eginkizun bakarra obetoago beteteko doaz. Apaiz batek, monja batek lelengo Jaungoikoarengan joan bear dau zuzen zuzen, mundu onetako gauza ta personetan gelditu bage; eta Jaungoikoarengana eldu ondoren, Jaungoikoarengandik barriro mundura, mundu onetako personeengana jetxi bear dau. Ezkontzara doanak, ostera, lelengo bere ezkon-lagunarengana, gero biak bat batera Jaungoikoarengana joateko. Ezkontza, bada, alkar-batu ta alkarbatasun onetan Jaungoikoa obetoago serbiduteko da. Ezkontuten diranak biak joan bear dabe bat batera Jaungoikoarengana. Jaungoikoarenganako bide auxe obetoago topatuteko batu dira.

## 2.—SEMEAK ASI TA EZITEKO.

Benetako karidadeak norberarengandik asi bear dau; alan esan oi da, eta ondo esanda dagoala esango neuke. Lelengo norberaren arima; gero bestearena. Baiña, zorionez, norberaren arimaren preokupasiñua —benetako preokupasiñua bada beintzat— lagun aurkoaren arimaren preokupaziñuaz batera doa.

Goratuago esan dogu: mundu guztia, mundu guztiagaitik preokupatu bear da. Ezkonduak be mundu guztiaren salbaziñuagaitik preokupatu bear dira. Baiña, ezkonduak, geienak beintzat, mundu zabal onetan euren aparteko "landaratxuak" daukez kargututeko, euren seme-alabatxuak; onexek dira ezkondu batentzat mundu onetan lelengoak; gero etorriko dira besteak.

Ezkondu batentzat ez da naiko norbera ta norberaren emaztea edo senarra salbatutea, ez; ez da naiko norberaren joera billatu ta aurkitutea. Ezkonduak —geienetan beintzat— ondorengoak daroaz. Ezkonduak, benetan jokatu gura badau, bere joku orretan bere semeak be kontuan eukiko ditu, edo... euki bear leukez. Ezkondu batek bere persona, bere burua ikusten dauan bakoitzean bere emaztea (edo senarra) eta seme-alabatxuak ikusi bear dauz bat batera; ezkondua ez da bakarrik bizi mundu onetan!

Eta, zeintzuk dira, ba, ezkondu batek bere seme-alabekaz daukozan obligaziñuak? Bi dirala esango neuke: a) seme-alabak bear dan moduan astea, b) seme-alabak bear dan moduan ezitea, edukatutea.

Gazte, ezkontzara joatea ez da "cásate, y tendrás hijos" esatea! Semeak eukitea da gauza bat; eta, **SEMEAK ASI TA EZITEA** da beste gauza bat!

Ezkondu baiño len pentsatu, gazte, nora zoazen eta "zertara zoazen"...

Zertarako alkartuten zarie zuek,

*Ille onen 17-tik beatu bat geiago dogu Elizan —geure artean— Eliza  
geu garan ezker. Romano-tar Bixente, bere izena.*

*Torre del Greco-n jaio zan, Itali-ko itxas ertzean dagon errixoan,  
1757-gn. urtean. 1831-n il zan. Geroago, Sta. Cruz-ko porrokua.*

## APAIZ SANTU BAT

Jaio be, itxasorako jaio zan. Umetan, bere begiak artuten eben guztia, arimaren barnerarte sartun jakon: mariñelen ibillaldiak euren izerdia bekokietatik dariola. Itxasoko kresalagaz baltzamoto ta gogortutako arpegiak betiko egin eben abia bere kontzientziapen.

Umea, errukitsua, biotzbera da izan be bere txikitasunetik urten arte. Orregaitik, gure gaurko itxas gizon doatsua be, umetarakoan, negar egiten ekian eta askotan saminduten zan ifok ezer esan barik, bere erriko gizon areen bizitza, ezbearrez beterikoa, ain biziro bizita.

Bere biotzak, galerna egunetan, ariñekek egiten ekian. Baiña, olan da guztiz be,

itxasoa, bere gorputz-arimaren beste erdia zan eta bere bizitza, dan-dana, itxasorantz kaideratua egoan.

Oraindiño umea, baiña azitxuagoa zala, patroï ta arraintzaleen arteko artu-emon desbardiñakaz enteratu zan. Legearen ausiketa ta bakoitzaren probetxua lenengoko gizonagaz jaio ziran lez, emen be eziran faltatu arraintzale ta erosleen arteko tratu lotsagarriak, eta gizaseme errukarriak, diru bearrez, galbidean ebiltzen beti. Arintzaleak galdu ta erosleak irabazi.

Kustifua olan ikusita geiago ezifnean, itxasoko gizon anaeri —apaiz (abade) eginda gero— bere bizitza guztian lagunduteko asmo sendoa artu eban.

Esan eta egin. Abade egin da mariñelakaz batu zan. Lenengo euren mixeri materialetan sartun zan gogo betez, gorputz eta arimaz ekifetan. Geroago, euren espirituzko, barruko mixeriaren urdiña, Kristo-ren borondatearen orioagaz bigunduten asi zan.

Itali-tik Afrika-ko itxas ertzeetara joaten ziran arraintzale areek koraletan, illa luzetarako. Geure apaiz doatsua be an joian euren batel zabalaren lepoan emoten eban meza. Jaungoikoari eurekaitik errukia eskatu; euren erri-miña osatu; ta euren Jaungoiko egarria ase.

Eta batez be, GIZONAK egin, gizon osoak izaten erakutsiz: gorputz eta arimaz.

Gaur, negargarritz, gure arteko itxas gizonetako askok, arimea manda batera bota dabe. Kontuan artun daigun:

Gizona gauza bigaz egifia da, gorputz eta arimagaz; bien egarriak bete bear dira gizon osoak izatekotan.

### bere bierrak:

- \* **ARRAINTZALEERI LAGUNDU GORPUTZ ETA ANIMAZ**
- \* **EROSLE TA SALTZAILEEN ARTEKO TRATUAK ARTEZTU**
- \* **BIZITZARI BIGUN BAT EMON**
- \* **GIZONAK IZATEN ERAKUTSI**

# ESTILOA

Gaur kristau bizitzan jokatzea era edo estilo bat markatzea da. Estilorik egiten ez dabezan kristiñau asko badira, bai seguru; ta beraz, kristautasun barne bat barrubarrukoa gaurko ambientaren aurka dago.

Gaurko ambientian fenomeno ikusgarri bat señalatu geinke: baten bat Opus, edo Kursillista, ala au edo a ezpada, mamiko kristaua ezjala sumatzen dogu. Ezarri daigun betiko: Jesukristok Sakramentuek itxi euskuzan gure anima bizitzako garaje, gasolineru edo fabrikatzaz. Ganerakoak, Jesukristoren doktrina, mami ta muin guztian, gure bizitzan ezarteko, lagun-bideak besterik ez tira.

Zutana edo mengana kursillo batera eldu dala-ta, bereala, Kursillista sanbenito ori ipintzen deusagu. Eztogu ondo jokatzeko orraitioak... Kursillo orren bestebearra bakoitxak daukan bide edo misiñoa argitaratzeko besterik ezta. Ta ziur, misiño ori betetzeko arlo nagusi ta bakarra mundu onetan. Kursilloa, barriz, ezta kristau bizitzaren sustai ta oñarria. Jesukristo eta bere Sakramentu bizitza, orra gure oñarri trinko ta sendoa.

Alan jokatzeko, ESTILOA MARKATZEA baita. Zer dala ta? Onelan gure bizitza bear dan seriotasunean artzen dogulako. Edozein enpresa edo negozio kontuetan galdere onek egiten doguz: "ZER, ZELAN, ZERTARAKO". Arrazoi beraz, geuk, geure kristau bizitzaz egin bear geinkez...

ZER jarraiten dogu? Kristautasuna gudan ta projimoengan zabaldu.


ZELAN? Apostoladu bizitzaz.

ZERTARAKO? Mundu onetan garan bitartean Zeruko Aitagana geure begiak jaso daiguzan, gure projimoen arpegietan itxaropen ta poz irribarrea erneminduz. ....

Jesukristoren Ebanjelioa ondoraño gorde

naï dauan kristaua sarritan askoren labarri izango da, ta beste askoren itxaropen argi; baña Kristo oneekin ezta lotsatuko.

Egun illunetako Teologia, Jainkoaren seme ta Zeruko Erreñuaren jabegai sentitua, au da ESTILOA MARKATZEA. Gañerakoak, gatz bako panparronadak eta bomba atomikoa baño gauza inportanteagoakin jolas egitea dira: KRISTOREN ODOLAKIN JOLAS EGITEA.



markatu

ER  
Elizak bere izate sakonena zitz kutunena eralgitzea naitzen terren eginkizuna bailitzan Vaticano II-tik atara daibena Liturji-eskema izan da.

Gizonaren salbazioak dau aurrenengo asikera bere burua galtzeko baiño goikoak erabaki dau gizon eta gizona bereganatzen, bere Borondatearen lerroan

ri azaldu jakun legez, Borondate orren bi-deak ez doaz gizonak banakan-banakan eta bananduta legez salbatzera, baizik erri bat sortutzera, erri bat —“bere erria”— gertutzera. Salbaziñuko Jaungoikoaren joerak, erri batean eta erri baterako nai ditula gizon guztiak ziurtzen deusku. Erri batean ipiniko dau Jaungoikoak gizona eta orixe izango da bere salbaziñua.

Ian Lege Zarrean, erri bat aukeratu eban Jaungoikoak beretzat. Israel izango zan “bere erria”, bere “zattia”, bere aintza zainduko ebana, bere begi-ñiñia legez maitatuko ebana. Israelen, erritar danez ez bada, ez dau gizon bakoetak parterik izango Jaungoikoak agindutako ontasunetan; legez, fedez, odolez, t. a. israel-darra ez dana, jainkozko bizitzatik alenduta dabil.

Lege Barrian, Jaungoikoaren asmoa ez da aldatu, bete baiño. Aurreko Testamentuan erri bat bai-eban aukeratu Jaungoikoak, oraingo errian bete ditu bere gurariak. Eliza da orain “Jaungoikoaren erria”, eta kristauok bere erritarrak. “Erri” au santua da, munduan Jaungoikoak daukan “zati banandua”, bere irabazi eta garaitza, berea. “Erri” onetan bakarrik aurkitzen da salbaziñu guztia: bertan parterik ez dauanak, ez dau parterik Kristorekin be, zerren Kristoren Gorputza dalako. Kristo da izan be, “erri santu” batean bildu gaituana, eta bere izenean alkar-batzen garanean, an dago Bera be gure artean.

Eliza, bere kultuarako Jaungoikoak au-

## SANTUA

keratu dauan “erri santua” da. Eta benetan, auxe da Jaungoikoak kristauekin egiten dauana be: aukeratu, elizaratu, bere kultuarako. “Baiña zuek, sengi apartaua zaree, benetako apaizak, naziñu santua, illunpetatik argi arrigarrira deitu zaituaren almenaren barri zabaltzeko aukeratutako erria”. (I Pe. II, 9). Eta au Liturjian jazoten da. Liturjia, Elizaren santifikaziñu eta kultuaren agerpena eta aiterra da.



Gure eginbear guztia “Jaungoikoaren erria” garela gaituana bizitzea da. Au da, Elizaren santifikaziñu eta kultua barru-barruan bizitzea, ernai eta arduraz.

Au da Konzilioak eskatuten deuskuna be Liturji-eskema gure eskuetan ipiñiaz.

Ixtoriari begikera txiki bat. Erromatarrak mundua oinperatu eben. Alejandro Nagusiak eta Napoleonek beste orrenbeste egin eben. Gaur munduak komunismoaren bil-durra dauko.

Egikera oneen bitartean urte asko sartu arren, ari arrigarri bategaz lotuta dagozala esan bear. Benetan sustrai batetik erne ziran. Ta bear-sustraiia euren. Izan be izerdiaren gainean altsa izan dira. Jakiña da erromotarrak euren lejiok astinduten saiatu zirala; ta ondo dakigu Alejandrok eta Napoleonek zelan entrenatzen ebezan soldaduak: autsa atara arte instruziñua erasoz. Komunistak, barriz, plan kinkenalak ziralata, 16 urte sartuten ebezan biarrean.

## TA., JARRAITU DAIGUN

Emendik zenbat-gura ikasi geinke baserriarrak. Bildur denboran gabizala esan geinke. Baztertuta geratuko ote garean, bildur; okelea edo esnea merkatuko dala-ta bildur; semeen edukaziñua eskaxa dala-ta, bildur. Seguridadea gura dogu, jaso-naiaren atzetik gabiltz. Ta zelan jaso? Bear ta izerdiaren bitartez; ez dago beste biderik.

Kemena da lenengo bear doguna. Naigabeeri ta etorkizunari zutunik eta anka biakaz lurra zapalduarik itxaron. Mundu guztia-ri arpegia ta agiñak erakusteko prest egon. Ta etorkizuna ondo ikusi ondoren, eskuak biarrera. Orrela obeagotuko dogu gure bizimodua.

Ez da naikoa kemena. Asmoak lortu ez dabezan biargiñ asko izan dira. Ez dabe irabazi beti biargiñ aundienak. Izan leitek-leoi baten kemena eukitzea ta, ipuin bategen diñoskun, lez, eltxo baten durunduagatik iltzea. Nekatzera joatea, galtzea da. Bear bearrezkoa, ba, buruagaz jokatutzea. Adimenez indartsuak izan bear gara. Au da baserriarrak egin bear dauana: gizoneri diplomazia ipiñi ta bizitzako gorabeeri abildadea, azkartasuna. Ta orretarako semeeri eskola geiago; gazteeri edukaziñu obeagoa.

Baiña oraindiño ez da naiko. Kemena ta azkartasuna ez dira naikoak. Derigorra iaku

luzaroan ta beti ekitzea. Iraupenaren bearri-zana dago. Ekin beti ifioiz jausi barik, arnasa artu barik, gura doguna lortu arte. Ez gaur bai ta biar ez; beti bai edo beti ez baiño. Baserrietan, zimeldu egiten ez dan kemen bat gura geunke. Ederto erakutsi eskuen au gure aurrekoak; garai txarretan be irabazteko itxaropena aiek.

Kristiñauak garean eskero barriz, bear egiteko zenbat gura erazoi daukoguz. Lege Zarrean arkitzen da bekokiko izerdiagaz irabaziko dogula eguneroko ogia. Ta begira Kristori: arpegian, bularrean, besoetan; nainon biargiñen antza. Etzan etorri Lege Zارا austera, betetzera baiño.


Mundua bide onera itzultzeko biarra gazarik onena. Biarraren bidez Kristogaz batutzen gara mundua salbatzeko.

Bizitza Zerua irabazteko burruka bat dala. Burruka-tokia, barriz, bakoitzarentzat diferentea; arerioak be diferenteak; erabilli bear doguzan armak be diferenteak.

Baserriarrak ba-dakigu non daukogun burruka-tokia: Baserrian. Ta bai ze arerio dan gurea be: atzerapena. Ona emen erabilli bear doguzan armak: adimena, kemena ta iraupena.

Egikerak, gizonak eta makiñek erabiltzen dakiezan gizonak izan bear gara baserriarrak.

**BU-  
RRU-  
KAN**



# Errezo

## gitxi

¿Beti brometan?

Ez orixe orraitio. Zuk gosia daukazu-nean eztozu pentzetan brometako gauze-tan, ogian baiño. Itxoten zagozanean, eztiñozu aizea txistua joteko dala baka-rrik. Ogia eta aizea gauza inportanteak dira, ezta? Orixer berberoi da otoitza be-lagun maitea. Iñok ezer esaten ezpadeu-tzu otoitzarengan, praileen edo alperren gauza bat dala uste dozu. Ez. Milla bi-der, ez.

¿Tentaziñoak? ¿Burrakak? ¿Arriskuak? Eta ezta esaten beste gauzarik gero gaur! "Otoitz egin tentaziñoan jausi ez zaite-zen" —diño Jesusek—. Baekiazan Kris-tok ondo orraitio gizonen gauzak, ondo ezagutzen gaituan! Eta kasorik ezteutsa-gunean egin nai, "belarriondoño eder bat" emoten deutsagu gure buruari.

Begiratu Apostoluei; Maixuak esaten deutse: "otoiz egin, ba-dator areriod". Apostoluak, lo. Eta gero, zer? Anka, Jesusengandik! Eta zuk?

Jaungoikoaren legea ezin leike bete, bere laguntzaren grazi aparteko bat izan ezik. Eta otoitzagaz emoten dau Jaun-goikoak grazi eder ori. Eta zuk; gizon-txu orrek... zaoa iregi barik bete nai dozuz Jaungoikoaren legeak? Kostako

jatzu! Eta gero, jatorrela datorrena!

Zure barruan pregunta bat ikusten dot: baiña zergaitik egin ebazan Jaungoikoak onelan gure beraganako gauzak? Berak orrela nai ebalako. Eztago beste eran-tzunik. Berak, gure munduko gauzak beste era batera egin leikeazan. Baiña ez... Kristok gerrea nai dan, eta gerra ortan ezagutuko dau ia zelakoa dan gure beraganako amodioa eta zintzotasuna.

Gure espirituzko bizitza ezla bakarrik zaintzen pekatuan ez jaustez. Santu-tasuna jaso bear dogu; baita Jaungoikoa-ren jakintzan be aurreratu bear dogu. Bestela, solo eder bat erosteia eta gero bertan ezer ez egitea izango litzake. Eta otoitza da gure solo eder ori.

Askotan diñozu: "Sinismen gitxi dau-kot-eta..." "Aaa, gaurko mundua be txarto jak-eta..." Eztago aitzakirik. "O-toitiz egin tentaziñoan jausi ez zaitezen". Mundua txarto dago —diñozu eta egi biribil bat da— baiña zzeu zelan zagoz, zeu, zeu?

Eztozu gitxi egingo Aitagure bat erre-zetan, asteaz. Umekeri bat dala? Bai? Ba ortik asi bear da. "Umeak lakoak egiten ezpazarie, etzarie nãre erreñuan sartu-ko" —diño Jesusek—. Or konpon!

Biar asko, baiña...

**baiña**  
**zer?**

Baten baiño geiagotan emon iakoz itaun oneri erantzun guztiz desbardiñak. Oraingoz, iritxi bi diferentienak ikusirik, egiazkora joko dogu. Kristianismuak emoten deuskunera, esan gura dot. Kristianismuak emon daikioe problema guztieri soluziño egiazkoa-ta.

poza ala  
tristetetasuna?

Lenengo iritxikoak, sozialistak dira. Onek, UMEKERIZKO OPTIMISMUAK eroanik, bierra pozaren iturria dala uste dabe ta gaur egunean gatxa ta neketsua dala ikusten badogu, ba errua kapitalisteri bota bear iake. Jakiña.

Beti dagoz amesetan: lur ontan Paradisu bat egin daitekela uste dabe. Eta Paradisu ortan gustora, alaitasunez ta pozarren egingo leikie bier gizonak, diñoie. Uste berauxe dauko Stalin-ek, esate baterako, ta iñoiz esan be egin eban: "Bierra, entusiasmo da". Kontxo! Bai e? Gabaz, ba, amesetan egin lei, baña egunez egitea be orraitño!

Beste iritxi puntakoak dira diñoenak gizona ezin izango dala iñoiz libratu bierrak daroian neke ta garraztasunetik. Gizonak beti ibilli bear ko dau Jainkoak Paradisuan emondako kastiguplean: beti ozka, beti negarrez, kantseta beti. Olan ikusten dabe ikusi bierra NEGARTI PESIMISTA asko ta askok eta euren artean XVII-garren gizaldiko jansenista batzuk. Asko da ba! Nun ete daukez begiak gizon onek, nun? Ze uste dot neikoa dala begiak arpegian eukitea, gauzak eztirala olan ikusteko!

Zoluziño zuzena ta benetazkoa Kristianismuak damoskuna da, noski. Kristianismuak, amesetan gabaz bakarrik egiten daualako ta begiak aal dan zabalen daukezalako. Orregaitik, bierraren alaitasuna ta bierraren neketasuna, biak ikusten ditu. Ta diño, ba bierra poza ta miñaren naaste bat dala.

# bierrak zer dakarsku?

## ZERGAIK DAN MIÑA?

—Nekea, jatorrizko pekatua-  
ren ondore edo konsekuentzi  
bat dan ezkeroz.

—Kendu ezin dan indarka  
edo esfuerzo bat daroalako be-  
ti beragaz batean. Baña in-  
darka ori kendu ezin bada be,  
gitxittu egin daiteke beintzat.

## ZERGAIK POZA?

—Gizonaren fakultate natural sortzailleak azi ta obetu  
egiten diralako.

—Betebear bat egiten dalako.

—Berari eskerrak lagunurkoak zoriontsuak egiten do-  
guzalako.

